**ERREPORTAJEA** PONEY-AK BASERRIAN · **GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN · **KIROLA** INIGO LARIZEK BIGARREN URTEZ JARRAIAN IRABAZI DU SAN PEDROKO TXIRRINDULARI IGOERA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko urriaren 19a/IX. urtea/380. zkia



# Jolaserako zalditxoak

# BASKO RENT

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI eta PREST!




**GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA**

GARBIKETA LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
~~500pta.~~ 3,50

1



GARBIKETA
~~400pta.~~ 2'50

**ESKUZ EGINIKO GARBIKETA**



GARBIKETA
BEREZIA
~~700pta.~~ 4,50

i



## HORREZ GAIN:

OlioarEn Edo filtroEn aldakEta
PnEumatikoEn aztErkEta Eta aldakEta
BalaztEn Eta EsEkidurarEn aztErkEta
MantEnimEndu orokorra

r

## SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

7 eta 8 pabilloiak • 20870 ELGOIBAR • Txanda hartzeko: 902 103 287 telefonora deitu.

i-atakIr

asteko notizia



## Egun bateko albiste

Talibanak, Bush, Afganistan, Estatu Batuak, antraxa, erasoak... **Berba** horiek errepikatzen dira maizen azken egunotako egunkari eta aldizkarietako titularretan. Irratietako mahai-inguruak ere adituz bete dira. Munduan gertatzen ari den gauzarik garrantzitsuena omen da, etorkizuna (norena?) jokoan ei dago. Ez naiz ni inor hori zalantzan jartzeko, baina titular txikiago batek erakarri du nire arreta aste honetan: Elikaduraren Mundu Eguna izan zen martitzenean, eta munduan 800 milioi lagunek gosea pairatzen dutela gogorarazten zuen. Bestalde, New Yorkeko Dorre Bikien aurkako erasoa gertatu zen egun berean 35.615 haur gosez hil zirela irakurri dut izkinaren batean, letra txikietan, gerrako berriek eta argazkiek libre utzitako lekutxo batean.

Milioika pertsaren bizitza (hala deitu ahal bazaio) egun bakar baten izan da notizia, eta ez oihartzun handikoa, gainera. Letra txiki batzuk arazo handi batentzat. Norbaitek erabaki du hori ez dela notizia azpimarragarria. Komunikabide boteretsuenek eta haien gidari diren interesek (ezer aldatu nahi ez dutenenak), Afganistanera begira jarri gaituzte, nahi eta nahi ez. Halabeharrez. Munduan onak eta txarrak daudela esan digute, eta guri "bakeroen" alde egon behar dugula agindu digute, "indio" gaiztoen kontra. Bitartean, ez da beste ezer gertatzen munduan.

**Montse Arregi**



## Kontakizun bat

Badugu lagunartekook gure oporraldietan estatuko hego-ekialdeko hondartzetara abiatzeko ohitura. Kasualitatez egindako bidaia batetik ondo errotutako usadioa sortu zaigu. Duela laupabost urtetik honantz Murtzia aldeko hondartzetan igarotzen dugu gure aisialdia.

Ez da ikusitako lurralderik politena; lehorra da, oso lehorra. Baina ezberdina da eta ezberdintasun horretan du xarma. Joanaren poderioz, bertan botatako sustraiak luzatzen joan dira, jendearekin harremanak estutzen eta inguruarekin konplizitate bat sortzen. Lagun oso onak ditut, lasaiak eta berritsuak, azkarrak pentsamenduz, baina hainbat gaitan errealitatetik kanpo daudenak. Euskal Herrian inoiz izan ez diren arren, ondo baino hobeto dakizkite hainbat politikariren izen abizenak, Xabier Arzalluz eta Arnaldo Otegirenak batik bat. Pentsa ezazue nondik eta nola jaso duten esandakoei buruzko informazioa eta zein iritzi sortu dieten, oro har Euskal Herriari buruz.

Abuztuko afaloste batean, ordea, erabat sumindurik aurkitu nituen. Egun hartan Antena 3eko kazetari batek esandakoei buruz ari ziren. Honek, ustez, ukatu egin zion nortasun propio bat Murtziako eskualdeari ez omen baitu Gaztelarekiko bereizgarririk. Beraz, azken eskualde honen baitan omen du izaera bakarra, eta ez bere baitan, estatuko beste eskualde bat bezala. Gaztelarrengandik dituzten hainbat ezberdintasun aipatu eta beraien identitatea berretsi ondoren, begira gelditu zitzaizkidan nire iritzia entzun nahian edo. Irrifarre maltzur bat luzatuz, guztiek ulertu zuten nire isiltasunaren esanahia.

**Gotzon Arrieta**

Kexak ..................................................

MOtZ MOtZ ............................................ 8

**gehigarria** ..................................................... 11

**kiRolAk** ........................................................

**aGenda** ........................................................

# Udalak goardiako medikuentzako aparkaleku bakarra eman du

## Osasun Zentroko langileek Alkatearen sentsibilitate falta salatu dute

lgoibarko Osasun Zentroaren eskariari erantzunez, Udalak goardiako sendagilearentzat aparkaleku plaza bakarra jarri du anbulatorioaren inguruan. Erabaki hori dela-eta Osasun Zentroko medikuek beraien ezadostasuna adierazi dute prentsara bidalitako ohar baten bidez.



Osasun Zentroaren aldamenean karga eta deskargarako gunea ipini dute. arrialdietarako, berriz, aparkaleku bakarra dago.

**Sendagileen arrazoiak**

Bertan, Alkateak Osakidetzaren zerbitzuei buruz duen ezjakintasuna salatu dute, honako arrazoiak emanez: "Goizeko 8:00etatik 15:00etara arte sendagile guztiak egoten dira anbulatorioan eta bakoitza berari dagokion larrialdiaz arduratzen da". Zentroko mediko bakoitza dagokion larrialdietaz arduratzen da, eta 15:00etatik aurrera sartu ohi da goardiako sendagilea".

Bestalde, larrialdi zerbitzuak betetzen dituzten beste profesional batzuk ere badaudela adierazi dute idatzian, erizainak eta pediatrak, besteak beste. "Zerbitzu publikoa izanik, Euskal Herriko herri guztietan sendagileentzako aparkaleku publikoak daude, ez, ordea, Elgoibarren", diote sendagileek.

Arrazoi hauetan oinarrituz Alkateak sendagileekiko duen sentsibilitate falta salatu dute. "Beste herri batean bizi denez, baliteke gure arazoak alkatea ez arduratzea", diote Osasun Zentroko langileek agiri honetan.

# Batasuna alderdiak ez ditu Udaleko zergen igoerak onartuko

## Herritarren partehartzerik eza eta gehiegizko igoera izan dira aurka azaltzeko arrazoiak

Joan den asteartean, hilaren 1 6an, B atasuna alderdiak prentsaurrekoa eskaini zuen 2002ko ordenantza fiskalen aurkako jarrera azaltzeko. Batasunak zergen gaian sentsibilitate berezia duela esan zuten: "Aurrekontu orokorraren sarreren zati handiena izateaz gain, herritarren ekonomia astintzen dute". Batasunak bi urtez jarraian partida berezia adostu du PNVrekin, Udaleko politika fiskalean herritarren partehartzea bultzatzeko helburuarekin. "Herritarrei ordenantzak aprobatu aurretik informazioa eman behar litzaieke, baita egoera sozioekonomikoa aztertu ere. Borondate ezarengatik hasierako lan filosofia indargabetu dute Udalean, ordenantzak aprobatu ondoren orri informatibo bat kaleratuko dutela esan arren".



Bittori Guenaga, Izaskun Arozena eta Asier Zengotita Batasuneko zinegotziak, hilaren l6an emandako prentsaurrekoan.

**Gehienez 7o4ko igoera**

Aurtengo zergen igoera proposamenak asko kezkatu ditu Batasunakoak. "Hondasun higiezinen zerga igotzeaz gain, beste zergetan ere izan da igoerarik, aipagarrienak uraren eta zakarren zergak dira". Hau ikusita, Batasunak bere proposamena aurkeztu nahi izan du: "Hego Euskal Herrian IPCaren batazbestekoa %4 denez, zergak eta tasak aztertu eta IPCaren azpitik dauden kopuruak kobratzea da gure asmoa. PNVk %4,5 proposatu du".

Batasunaren ustez, beste irtenbide batzuk aztertu beharko lirateke: Diputazioari diru sarrera handiagoa eskatzea edo Udaleko diru soberakinak jendeak zergetan hainbeste ez ordaintzeko erabiltzea, esaterako.



## Zuhaitz Astialdi Taldeak bihar, hilak 20, hasiko ditu gazteentxoentzako ekintzak

Parrokia barruko Zuhaitz Astialdi Taldeak taldean elkarbizitzen ikasteko helburuarekin DBH 1, 2 eta 3. mailako neska-mutilak gonbidatu nahi ditu, bihar, hilak 20, arratsaldeko 16:00etan hasita, Ubitarteko Gazte Klubean egingo den jaialdira. Ondoren larunbatero irekiko dituzte ateak eta gaztetxoek gazte klubeko futbolinak, mahai joIasak... erabiltzeko aukera izango dute. BestaIde, Zuhaitz Astialdi Taldearekin lotura estuagoa duten beste ekintza batzuk ere egingo dituzte, besteak beste, konbibentziak, dinamikak, jolasak... Beraz, gaztetxoei Ubitarteko lokalera joateko deia luzatu nahi diete. Zita bihar, larunbata, arratsaldeko 16:00etan.

## Errosario kaleko errifetako zenbaki sarituak

Pasa berri diren Errosario kaleko jaietan aspiragailua, plantxa eta kafetera zozketatzeko txartelak saldu zituzten. Agian zuetarikoren bat izango da zorteduna. 069 zenbakia duenak, aspiragailua eta plantxa eramango ditu eta 058 zenbakidunak, berriz, kafetera jaso ahal izango du.

## 28 elgoibartar Picos de Europan izan dira Morkaikok antolatutako irteeran

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Picos de Europara irteera egin zuten joan den asteburuan 28 elgoibartarrek. Ostegunean abiatu eta "El Redondo" kanpinean lo egin ostean, ostiralean "Horcados Rojos" 2506 metroko mendia igo zuten, batzuek baita "Pico Tesorero" (2570m.) ere. Larunbatean, "Vega deLiordes" bailara zeharkatu zuten eta igandean `Teria Vieja" mendian (2.613 m.) izan ziren batzuk. Mendi irteeraren berri emateaz gain, mendiko argazki lehiaketarako epea zabalik dagoela ere jakinarazi nahi dute Morkaiko Mendizale Elkartekoek. Azaroaren I5erako aurkeztu beharko dira erretratuak, pertsona bakoitzak gehienez, 3.






## Irukurutzetan ez da parke eolikorik egongo beharrezkoa ez bada

Irukurutzetan parke eolikoa jartzeko p1ana ez da lehentasunezkoa izango Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren arabera. Lehentasunen arabera, bi taldetan banatu dituzte parke eolikoen kokalekuak, eta Irukurutzeta bigarren taldean dago. Beraz, beharrezkoa izan ezean, ez da bertan parke eolikorik egingo. Udalak eta herriko beste hainbat taldek Irukurutzeta ingurua babesteko asmoa azaldu dute. Bertan, galtzorian dauden 6 espezie bizi dira, balio historikodun monumentuak daude eta paisaian eragina izango luke. Arrazoia "Ekos" ingurugiro enpresak egindako ikerketa baten ondorioak dira.

### Manuel Fraga 79 urterekin aurkeztuko da Galiziako presidentea aukeralzeko hauteskundeetara

# POLITIKOE, JUBILATZEKO EDADERIK IPINI BEHAR AL ZAIE?



**MIGUEL ALONSO**

**41 urte, metaleko langilea**

Bai, lan guztietan bezala, jendeak adin batera heltzean, postua utzi behar luke. Fragaren kasuan, urte asko egin ditu lan horretan eta bada jende gaztea, beste idea batzuk dituena, bere lekua hartzeko.

**NATALIA GARCIA**

**30 urte, Ingeniari teknikoa**

Bai, besteok bezala. Beraien hitzek jendearengan gehiago eragin dezaketela kontuan hartuta, agian lehenago jubilatu beharko lirateke politikoak. Fragaren jarrera-erradikalak ez dira logikoak, adinaren kontua izango da.





**DAISSY BRIGITE SUAREZ**

**22 urte, erizaina**

Ez. Beraien lana zuzen betetzeko gaitasun intelektuala duten bitartean politikoek beraien lekuan jarrai dezaketela uste dut, adina ez da horretarako muga bat.

**JULIANA JIMENEZ**

**38 urte, dendaria**

Baietz uste dut, Denbora batez karguan egon ostean, aldatu egin beharko lukete, eta postu hori beste norbaitek hartu. Fraga, esaterako, jubilatuta egon beharko litzateke.





**ANGEL GARATE**

**51 urte, alnriazenista**

Bai, une egokian erretiratzea da onena, gainontzekoak bezala 65 urterekin-edo, ez 80 edo 90ekin. Nik Fraga nahiko gaizki ikusten dut, aspaldi utzi behar zuen kargua.

**ALBERTO BOYERO**

**40 urte, sendagilea**

Ez. Gaztea izan edo zaharra izan, bere kargua betetzeko gai bada, ez dauka zertan utzi beharrik. Langilearen eskubidea da 65 urterekin erretiroa hartzearena, baina ni ez naiz derrigorrezko jubilazioaren aldekoa.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
- IZENA EMATEAN %oi OEKO BEHERAPENA

94,744 e« wavam otixt,4 km44 1 6 totettelep ,

LARRAÑAGA
TOESXOLA
Tel: 943 74 10 11

# Gaztia naiz

# Barren

2001ko urriaren 19a. IX urtea/380. zkia

GEHIGARRIA

# tuning




Itziar ElustondoELKARRIZKETA TuningGAIA MaialEn AstigarragaionAGABE

## CDOIN' SOMETHING

Zerhait egiten¯ da Soulive hirukote estatuhatuarraren lanik herdena. argitaratzen duen laugarrena, eta Blue Note Reeords disketxe mitikoarekin kaleratzen duen estrainekoa. Gure artean izan ziren kontzertuan, Donostiako Jazzaldian, hain justu. Bertan konturatu ginen zuzeneko taldea dela Soulive, eta heraiek ere hala onartzen dute. Erie Krasno gitarran, Alan Evans haterian eta here anaia Neal Evans teklatuan dira Soulive.
Sustrai beltzak uztartzen dituzte heraien abestietan. soula, funkya, rythm & hluesa... Eta kanta gehienak instnimentalak dira, "Romantle¯ izenekoa da ahestua den hakarra. Bertan Stephanie McKay clugu kantari lanetan. Kontzertuan eszenatoki gainean hirukotea hakztrrik ikusi arren, estudioan haizezko instrumentuak ere sartzen dituzte. Lan honetan Jeremy Pelt dago tronpetan. Jacques Schwarz-Bart saxo tenorean. Sant Kininger saxo altuan eta Fred Wesley„ Jttmes Bmwn handiaren handako partaidea, tronhoian. Azken hatt, ordea, ez da taldeak izan duen kolahoratzaile ospetsu bakatra. Izan ere, pasa den urtean kaleratutako "Turn it our diskoan John Seofiekl gitarra jole ezaguna izan zuten lagun.
Soulivek ez du jazz kiasikoa egiten, ez da jazz itxia, nolabalt esateko. Estilo hau entzuten ohitua ez dattoen jendearentzat mundu honetan murgiltzeko aukera polita da "Doin"somethi Doinu atseginak, ±_litarra tinak eta erritmo clantzaganiak. Dudarik gabe, musika zaleen egarria asetzeko moduko koktela.

,Jon Gurrutxaga





## ITZIAR ELUSTONDO

# "NErE burua hobEto ErrEspEtatzEn ikasi c

**ITZIAR ELUSTONDO DUELA 10 EGUN BUELTATU DA KOLONBIATIK. HIRU HILABETE EGIN DITU MEDELLINGO "13 DE NOVIEMBRE" AUZOAN. 23 URTEREKIN INOIZ AHAZTUKO EZ DUEN ESPERIENTZIA BIZI IZAN DU. KOLONBIAKO HAURREKIN ETA JENDEAREKIN LAN EGIN DU, HAURTZAINDEG1AN BATIK BAT. BIZITZA ULERTZEKO MODUA ERE ZEHARO ALDATU ZAIO. ZERGATIK? EZ DAKI. KOLONBIAN LAGA DU ERANTZUNA ETA EGUN GEHIAGO BEHARKO DITU HAN JASOTAKO GUZTIA ASIMILATZEKO.**

**Zertara joan zara Kolonbiara?**

Eusko Jaurlaritzak lankidetza programa bat daka. Programan apuntau nintzan eta aukeratu ein ninduten. 6 lagun juan ginan Euskal Herritxik. Programa horren barruan, neri guarderixa batian lan eitxia tokau jatan; eskola bat montatzen ere ein dot lan, aisialdi talde batekin ere bai, kaleko umieri laguntzen...gauza asko ikusi eta ein ditxut.

> "Guarderixa bateko umiekin eskola bat montatzen eta kaleko umieri laguntzen egon nalz"

**Zer topatu duzu Kolonbian hemen ez dagoena?**

Gauza pila bat. Hango jendia oso desberdina da, Alde batetik igual txarraua, baina askoz ere enkanto gehixao dauke, hitz egiterako orduan irekixauak dia, dantzarako zaletasun asko dauke. Han, nahiz eta gauzak hitzez ez balorau, lanian zaozenian, oso gustora sentitzen zera. Hemen hitzez gehixao esaten dogu han baino, baina hemen baloratua sentitzia oso zaila da.

**Lapurreta asko eta hilketa asko dago, ezta?**

Egon badao. Guk ez dogu lapurretarik bizi izan baina hilketak gertu tokatu jakuz. Han auzoka milizianuak daoz, "los muchaehos del barrio" deitzen diete. Auzua armekin



# Ezautu dot Eta jendia lot Kolonbian"

zaintzen dabe lapurretak ez egoteko edo inork ez marihuanarik saltzeko, baina, beraiek dia droga saltzen dabenak. Tiroka zaintzen dabe auzua eta tiruak gabero entzun ditxugu.

Euskaldunongandik oso desberdina al da hango ,jendea?

Bizitza ulertzeko era oso desberdina da. Bizitza ere desberdina da, nezesidadiak desberdinak dia. Han nezesidadiak jatia, jaztia eta etxia eukitzia dia. Gero, eguneroko relaziuetan ez dia batere sintzeruak.

Zer ikasi duzu heraiengandik?

Dana ikasi dot. Nik erakutsi dotena baino askoz gehixao. Nere burua ezautu dot, jendia errespetatzen ikasi dot.

Zertan lagundu duzula uste duzu? Nik maitxasuna eman dot: kalian, eskolan edo umiekin guarderixan egon naizenian. Umiak musuak, besarkadak... bihar ditxue eta hori ematen saiau naiz.

Zer da orain, egunerokotasunean aldatuko zenu keena?

Gauza materialak. Hemendik hilabete batzutara berriro ere kontsumuan zirkuito honetan sartuko naiz ziurrenez: mobila, kotxia... Baina, printzipioz, gauza materialak alde batera laga nahi ditxut, nere nezesidadiak bajau. Han nere nezesidadiak alimentaziva, jantzixa, lo eitxia, maitxasuna... zian

Posible izango dela pentsatzen duzu?

Ez, baina gizarte mota honek nora eruaten gaitxuan konsziente naiz oin.

Guztiok eduki beharko al genuke horrelako esperientziaren bat gure bizitzan?

Bai, baina ez dakit hala ere, jendia konturatuko zan. Hara juan zeinke eta ezertaz ez enterau; ez bazera igotzen auzo batzuetara eta beraiekin lan ein, behintzat. Pobrezia dao eta gosia dao, baina ez dia telebistan ikusi ditxugun imagen dramatiko hoiek ere.

**"Eguneroko bizimoduan gauza materialak alde batera lagatzia nahi dot"**

Bueltatzeko asmorik?

Asmua bai, baina hori ezin da inoiz jakin.



## MOBY DICK
### HERMAN MELVILLE

Aurten hete dira 150 urte "Moby Dick" liburuaren lehenengo argitarapenak argia ikusi zuenetik. Herman Melville idazle iparramerikarrak idatzi zuen, itsasoan marinel jardun ondoren. Izan ere, here aitaren negozioak pormt egin zuen eta herak itsasoan lan egin beharra izan zuen. Bitxia bada ere, hasieran ez zuen oihartzun handirik izan liburu honek. haina ondorengo argitarapenek, uneen poderioz, irakurleen estimazioa jaso zuten. Denhorak bere lekuan jartzen ditu liburu onak eta nobela hau, gaur egun, itsasoko literaturaren klasiko hat da.
Herman Melvillek asmaturiko balea zuriaren istorioa nahiko ezaguna da dagoeneko. Gainera, John Huston zine zuzendari handiak liburuan oinarrituz egindako izen bereko pelikulak ere arrakasta eduki zuen. "Moby Diek" halea zuria harrapatzeko, Achab kapitainaren egoskorkeria eta ahalegin guztiak indar eta emozio handiz azaldu zituen idazle amerikarrak

**Jon Eugi**

kurri



MOBY DICK
Herman Ntels ille

# Tuning jaialdiEn INGURUAN

**Tuning-a gazteen artean modan dago eta tuning jaialdiak perrebeikoak moduan ari dira hazten. Pasa den asteburuan (urriak 13-14) Donostian izan zen azken jaialdla. Jakin dezagun zer dlren eta parte hartu nahi izanez gero, zer eskatzen den jaiaidi hauetan.**

### PARTEHARTZAILEAX

Europa osotik joandako 300 autok baino gehiagok hartu zuten parte Donostian.

30.000 ikusle izan ziren, gutxi gorabehera.

### SARIAK

Kanpoalde onena, barrualde onena, SPL edo soinu potentzia onena (6000 watioko ekipoak ikusi izan dira), aleroirik ikusgarriena, detailerik onena, autorik agresiboena, sinpatikoena...

### INSURUKO BESTE JAIALDI BATZUK

Zarautzen, Billabonan, Satamancan, Miranda de Ebron, Olaberrian... Gero eta ugariagoak dira jaialdiak egiten dituzten lekuak.

Informazioa jasotzeko tuningeko dendak daude. Euskal Herrian gero eta denda gehiago ari da zabaltzen.

Ramon Garcia elgoibartarrak Donostiako jaialdian parte hartu zuen bere Opel Ascona 2000 i autoarekin, eta baita sari bat irabazi ere. Soinu kalitate onenari ematen zaion "IASCA soinua" saria eskuratu zuen.

**RAMON JAVIFX GARCIA ELGOMARTARRAK 1989. URTEKO OPEL ASCONA BAT DU. AUTOA LESIF11 ALDIZ IKUSTEN DUTENEK ASKOTAN MERCEDES EDO BII4W BATEKIN NAHASTEN DUTELA. AITORTU DIGU. IZAN ERE, HASIERASO AUTOTTIC OSO GUTXI GERATZEN DA, GURPILAK, LLANTAX, LEMOAE, HEGALEKOAK... ETA BESTE HADIBAT GAUZA ALDATU BAnzam. TUNING EDO AUTOA PERTSONALTZATZEA DEITZEN ZAIO RAMONEK EGIN DUENARI. INORK BZ DU BERF.A MODUKO KOTXER1K. HOR1XE DA TUNINGAREN F1FLBURUA. SERIEKO AUTO NORMAL BATETIK ABIATUZ BENETAKO ARTELANAK SORTZEKO GAI DIRA BATZUK, NAHIZ ETA BESTE BATZUEI AUTOBEIN EGTTEN DUTENA GEHIEGIZKOA IRUDITU.**

### PINTURA
**Margo** urdin metalizatua, lakatu kapa batekin.

### KRISTALAK
Tintatutako kristalak.

### BOLANTEA
**"Momo** Chanpion" bolantea (20.000- 50.000 pta. bitartean).

### GURPILAK
205 40" 17" erroberak (200.000-500.000 pta. bitartean),

### MAN DOAK
"Fabian" etxeak Bartzelonan egindako mando pertsonalizatuak.



### TAPIZERIA
Larruzko tapizeria, **"RECADO"** aurreko eserlekuekin

### MOTORREAN
Koni suspentsioa
**"BOXLAND"** malgukiak, 3 cm gutxituta
Bi irteerako "REMAX" eskapeko tuboa
Zuzeneko filtrodun "GREEN" motorra.

### FALDOIA
**M3** faldoia (200.000-800.000 pta. bitartean).

### MUSIKA EKIPOA
Pioneer, "STEP" etapekin, "ALPINE" bozgorailuak aurrean. **"JBL"** bozgorailuak atzean, "SUBWOOFER"-a 15" audioarekin. 4.550 W (500.000- 1.500,000 pta. bitartean).

# ri 1111 g

## autoa ARTELAN bihurtuta

## "Gidatzen dudan autoa errepidean bakarra dela jakiteak, bete egiten nau"

**Nola sartu zinen Tuning-ean?** Aldizkarien bidez izan nuen Tuning-aren berri Iehen aldiz eta gustatu egin zitzaidan. Autoa erosi eta ia pentsatu gabe hasi nintzen Ilantak aldatzen, bolante berria jartzen, musika ekipo berria... Tuning-aren munduan zebilen jendea ezagutu eta leporaino sartu nintzen.

**Ez al da errazagoa auto berri bat erostea?** Hasieran kritika eta iseka asko jaso nituen kotxe zahar batekin hasi nintzelako. Orain oso harro nago autoaz eta berria erosi eta tuneatzen hastea baino meritu gehiago du.

**Zenbat diru gastatu duzu?** **Mi**lioi bat eta bi milioi bitartean. Hasieran kotxeagatik ordaindu nuena baino gehiago, ziurraski. 5 miloi gastatu dituztenak ere ezagutzen ditut, nahiz eta normalean gure artean ez dugun diru kontuez hitz egiten.

**Merezi al du?** Bai eta ez. Diru aldetik ez da errentagarria ateratzen. Dirua eta denbora galtzeaz gain, pieza bakoitza lortzeko neurrira eskatu behar ditut eta lortzeko hilabeteak itxaron. Bestalde, lasai sentitzeko balio dit. Gidatzen dudan autoa errepidean bakarra dela eta beste inork nirea modukorik ez duela jakiteak bete egiten nau.

"Aubagatik 2 milld eskaini dizIddate eskura, haina nkaidiat ez du prozlorir

**Salduko al zenuke zure autoa?** Ez, 2 miloi eskura eskaini zizkidaten, baina ez nituen onartu. Lan asko egin dut auto honetan eta niretzat ez dauka preziorik.

Gainera, oraindik hobetzeko asmoa dut. Ideia mordoa dut buruan, baina dirua eta denbora behar dira.

**Gustuko kotxe bat?** Debako lagun batek duen Audi A3 autoa ikusgarria da. Espainiako tuning autorik onenetakoa aukeratu dute aurten eta Montmelon sari bat irabazi zuen. Azpeitiar lagun batek, berriz, ikusi dudan Hyundai Coupe politena dauka, oso ondo prestatua. Niri Opel Vectrak gustatzen zaizkit asko.

**Nondik dator TLining-a?** Tuning orijinalak Frantzian du jatorria, baina estatubatuarrek exageratu egin zuten eta auto sinestezinak sortu dituzte. Detaile exageratuak baino nahiago ditut armonia bat mantentzen duten piezak ipintzea.




Ramon arcia

# LEHIOKETO

## a.s matL,

## LIBURU BATeskuratu

**Hilabete honetan "Harry Potter eta sekretuen ganbera", liburua eskuratzeko honako galdera honi zuzen erantzun behar diozu:**

**NORK IIDfrTZI VU "lifiRRY POTTER ETA SEKRETUEN GONBERfin ELOBERRIP**




**Harry Potter arti ausarta, Hogwartseko Azti eta Sorgin Eskolan lehenengo ikasturtea bukatu ondoren, bere osaba-izeba gogaikarrien etxean dago, bigarren ikasturtea noiz hasiko zain...**

BARRENen eta ELHARLANEAN arottaletsearen arteko kultur eskaintza da hau.

Erantionak BARRENEra ekar ditzakezue edo buzollan laga hamabost eguneko epean.

# kontzErtuak

## 19 barixakua

ALTSASU
00:00 Arima Beltza.
Bierri tabernan.

BERGARA
22:00 Backyard Babies
Danko Jones eta Tyla.
Jam aretoan.

BILBO
22:00 Bernard Allison.
Kafe Antzokian, 2.200 pezeta.

22:011 Shuga Wuga
Azkena aretoan,
1.200 / 1.500 pezeta.

DURANGO
23:00 Bomba Lapa, Kañeria 13 eta Inadaptats.
Txosnetan

21:00 Reston Sobres eta Antikapital.
Sapuetxe gaztetxean

## 20 zapatua

AZKOITIA
22:30 Etzakit
Plazan.

DURANGO
23:00 Ainke, Punpin Folk Band eta La Vaca Guano.
Txosnetan

HERNANI
22:30 Maren-Kepa Junkera
Kiroldegiko Frontoian, 2.500 pezeta.

## 23 martitzEna

EIBAR
19:00 Uztail Oparo Ostean.
Portalean.

## 26 barixakua

BILBO
**22:00** Alboka & Marta Sebestyen
Kafe Antzokian, 2.500 pezeta.

22:00 Cheb Balowsk.
Azkena aretoan.

21:00 Ixkitt eta Zurkaitz
**Bilboroc:k** aretoan

**ELGOIBAR**
22:30 Kaotiko eta Korroxiba.
Gaztetxean, 500 pezeta.

BERGARA
21:00 King Putreak, Leihotikan, Ken 7, Berri Txarrak, Txapelpunk, Jousilouli eta Buitraker. Jam aretoan. 1.200 / 1.500 pezeta. Gor disketxearen 10. urteurren jaia.

Kokoe



# lots@gabE

**Atal honetan parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri Barrenera. Animatu!**

**@ Deskribatu zure burua.**
**Momentu honetan, lotsagabia.**

**@ Zurea ez den eskutitz bat aurkitu duzu., zer egingo zenuke?**
**a. Irakurri eta zuretzako gorde.**
**b. Ez irakurri eta jabeari eman.**
**c. Irakurri eta jabeari eman.**

*c. Elgaibarko Ortentxi naiz.*

**@ Zeri ematen diozu garrantzia mutil batetan?**
Gerritxik bera ondo dotauta egotiari.

**@ Zer gustatuko litzalzuke zure maitaleak San Balentin Egunean oparitzea?**
Larrosa **bat.**

**@ Nola moldatuko zinateke berak zuk nahi duzuna erosteko?**
"**Erosi larrosa** bat, ya!", esango nioke.

**@ Beldur gehien pasa duzun momentua?**
Itziarren, gauez, lagun batzuekin gauza arraro batzuk entzun eta ikusi genitxuanian.

**@ Noiz egon zara azkenekoz mutil hatekin?**
Jo, Jokin, ez zera gogoratzen, ala?

**@ Komunera irakurtzeko zerbait eramaten al duzu?**
**BARREN** noski!(Boing, boing, boing...)

**@ Zein da zure fantasia sexuala?**
**Txikitako lagunekin orjia bat eitxia.**

**@ Zein arrazoirengatik joango zinateke kartzelara?** Euskeria defenditziagatxik.

**@ Zein pertsonaia famatu izan nahiko zenuke?**
**Ezer ein** gabe bizi dan horietako bat.

**@ Zure mutilari ez zaizkio zure lagunak gustatzen eta beraiekin ez ihiltzeko eskatu dizu. Zer egingo duzu?**
a. Lagunengandik baztertu.
**b. Mutila** baztertu.
c. Zure lagunak errespetatu behar dituela azaldu.

*c. Eta ulertzen ez badu, lagunekin geratuko nintzake. Itsasuan arrain askn dao baina, lagunak...*

**@ Lotsa ematen al dizu zure mutilak kale erdian musukatzeak?**
Ez, momentu horretan ondo zaoz eta ez dau inporta nun zauden.



**http:/ maialenastigarraga@com / 16** urte

*Guruzne Urkidi, lokin Altuna eta Miren Bastidaren laguntzarekin egiten dugu atal hau.*

oa.zte informazioa

*Elgoibarka Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Osteguna-ostirala: 17:00-20:00*
*Larunbata: 10:00-14:00*

## BI3LAK

**Ikerketa beka**
Jesus Gangoiti Barrena Fundazioak, 40 ikasketa eta ikerketa beka deitu ditu goi mailako titulatuentzat. Aztergaiak, besteak beste: merkataritza, medikuntza, farmazia... Eskariak egiteko epea: azaroak 6.

**Udako ikastaroak**
2002ko udan Alemaniako unibertsitate batean udako ikastaroak egiteko 50 beka deitu ditu DAADk (Truke Akademikoko Zerbitzu Alemaniarra). Eskariak aurkezteko epea: azaroak 30.

## JANDUERAK

**Zinea**
Bidasoako Zinema Arkeologikoaren Nazioarteko dia Irungo Udalak antolatuta. Filmak ikusteko aukeraz gain, mahai-inguntak egingo dira. Eguna: azaroaren 7tik 9ra.

**Antzerkia**
Bilboko Udala, Gaur Egungo Dantza eta Antzerkiaren III. Jaialdia ospatzen ari da. Besteak beste,"Dar Darren"-en ekitaldia izango da ikusgai. Jaialdia urriaren 21ean amaituko da.

## IKASTAROAK

Ipuin kontaketa ikastaroa
Antzuolako Udalak ipuin kontaketa ikastaroa antolatu du. Izena emateko azken eguna: urriak 31.

## SARIAK ETA LEMAKETAK

**Euskal lankidearentzako saria 2001**
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzak 2001eko Euskal Lankidearentzako sariaren deialdia egin du. Sari horren helburua Hirugarren Munduko herrialde eta herrien alde egindako lan solidarioa dela-eta nabarmendu diren Euskadin sortutako pertsonak azpimarratzea eta horien iana aitortzea da. Epea: urriak 27.

**Pintura lehiaketa**
Zipristin Pintura Lehiaketa Tamayo eta Photo Center-ek antolatuta. Lekua: Donostiako kaian. Eguna: urriak 20.

## LANA

**Lanbide«bastapeneko Teknikaria**
Urola Kostako Udal Elkarteak lanbide-hastapeneko erdi-mailako teknikari postua betetzeko lehiaketa-oposizioa deitu du. Gizarte Laneko edo Gizarte Heziketako diplomatura eta 3. hizkuntza-eskakizuna eskatzen dira. Epea: urriak 22.

**Administraria**
Segurako Udalak administrari postu bat betetzeko lehiaketa-oposizioa antolatu du. Goi mailako Batxilergoko edo bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izan behar dira. Eskaerak aurkezteko epea: urriak 22.

*Oharra:*
*Elgoibarko edo inguruko elkarte, heziketa zentro edo enpresei, eskertuko genizueke zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan eskaintzen informazioa Gazte Infonnazio Gunera bidaltzea. 1-1orrela, bertakn gazteei nahiz probintziakoei inffirmazioa zabaldu ahal izango diegu.*

# informazioa

## EuskoTren TRF 1K

DONOSTIA-BILBO
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Donostia | 5,45 | 06.45... | 20.15 |
| Elgoibar | 07.02 | 08.02.. | 22.02 |

jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSLIA
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bilbo | 06:00 | 7.00... | 20.00 |
| Elgoibar | 07.23 | 08.23... | 21.23 |

iliegunetan 8 00etan ha.siko dira

## EuskoTren AUTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07. 50 g8.50.. 21.53

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgoibar | 07.25 | 08.25 | 10.25... | 21.25 |

Jaiegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgoibar | 08.25 | 09 25 | 10.25 | 21.25 |

## PES.AUTOBUSAK — LARUNBAT GAUA

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eihar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 90.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.95 | 03.05 | 05.05 | 07 05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarwa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03 40 | 35.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00,05 | 02.05 | 04.05 | 06,05 |

*Autobusetako infonnazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.*

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 20 | Yudego* | Escala |
| 21 | Yudego* | Escala |
| 22 | Bidasolo | Bidasolo |
| 23 | Etxeberria | Etxeberria |
| | 15ant Ana kalean1 | |
| 24 | Fernandez | Fernandez |
| 25 | Yudego | Yudego |
| 26 | Zabaleta | Zabaleta |

**FARMAZIAK**

ESCALA, Rekalde, 1 Soroluze.
Tel: 943 75 T6 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Goragorza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA,Kaleborren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
'eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

**21 igandea** Doña Mercedes

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbulatorioa .......................... 943 03 26 10
Planning-a .......943 74 29 50
Alkoholiko Anommoak 943 74 03 85
D.Y.A ranbulantzra) ....................... 943 46 46 22
Gurutze Gorria ......................... 943 74 38 64
Mendaroko OsPrlalea 943 03 28 00
Odol Ernarleak ............ 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak 902 54 32 10
PESA (Erbar) ............................ 902 10 12 10
Taxi geltokia ............................ 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
Uda4 Kirol Patropatua .943 74 44 15
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
Mendaroko Udala . . 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ......... 943 74 10 08
